

**HIZTEGIKO HITZEKIN JOLASTEN****Sarrera**

Euskaltzaindiak “Hiztegi Batua” sarean eskuragarri jartzeak hitzekin jolastea erraztu egin du. Hemen lau jolas aurkeztuko ditut.

**1. Euskarazko hitzik luzeena**

Euskarak berba luzeak dituela esaten da. Hori izan daiteke berbek bukaeran atzizkiak hartzen dituztelako baina horrek ez du berba luzea egiten, baizik eta (berba + atzizkiak) multzoa egiten ditu berba luze-itxurakoak.

Horregatik, lehen puntua berba zer den definitu beharko da. Jolas honetarako, berba (edo hitza) izango da Euskaltzaindiaren “Hiztegi Batuan” sarrera edo azpi-sarrera merezi duen terminoa (errazago jartzeko, hiztegian beltzez datozen berbak).

Bestalde, marradun berbak ez dira kontuan hartu. Suposatu egin da marradun berbak bi berbez (edo gehiagoz) osatuta daudela, eta hemen berba luzeenaren bila goaz, eta marradun konposizioek ez lukete tokirik izan behar.

Eta errepikapenak kendu egin dira: hau da, berba batek bi esangura (edo gehiago baditu, berba bakar moduan hartu da kontuan.

Hori horrela, 29102 berba desberdin tratatu dira, eta batuz besteko luzera, 8,153 izan da.

Eta berbarik luzeena: **ERREPUBLIKAZALETASUN**: 20 letra  
 19rekin geratu direnak, 7: bederatziehingarren  
 desoxirribonukleiko  
 distantziakidetasun  
 diziplinartekotasun  
 errespetagarritasun  
 instituzionalizatze  
 instituzionalizazio

## 2. Bost bokalak dituzten berbak

Sarri askotan, kuriositateak jota nagusiki, geure buruari galdera tontoak egiten dizkiogu. Eta horietariko bat hau litzateke: ba ote dago euskaraz bost bokalak dituen berbarik?

Erantzuna, baiezkoa da. Euskaltzaindiaren “Hiztegi Batua” begiratuta, eta marradun berbak kontatu gabe, guztira, 333 agertzen dira (adibidez, adulterio, aireportu, autobide, erakustoki,...)

Eta horietarik, zein da laburrena?

Lau daude (7 letrarekin): ekuazio, eufonia, euforia, sekuoia.

Eta luzeena?

Bi 19 letrarekin: diziplinartekotasun, instituzionalizatze.

Eta horietatik, zeinek ditu bost bokalak ordenatuta? Nik berba bakar bat aurkitu dut: **areriotu**.

### 3. Berba palindromoak

“Ama” berbak, beste konnotazio askoren artean, simetria handia duen berba bat da. Ba ote dago hiztegian eskuinetik ezkerretara eta ezkerretik eskuinera berdin irakurtzen den beste berbarik?

Bai, nahikotxo gainera. Hona hemen batzuk:

ama, aza, ele, idi, ioi, olo, arra, erre, irri, orro, urru, amama, edade, kayak, radar, korrok, alagala...

Hala ere, ez dira asko eta gehienak, motxak. Nik topatu ditudanetatik, zazpi letratakoak dira luzeenak.

### 4. Pifilologia

Ez, ez naiz erratu: pifilologia idatzi nahi izan dut. Eta zer da pifilogogia?

(Ingeles) Wikipedian begiratuta (*piphilology*), pifilologiak, pi zenbakiaren zifrak buruz ikasteko teknika mnemoteknikoak sortzea du helburu. Eta teknika horietako bat zera da, esaldi bat sortu, non lehen berbak, pi zenbakiaren lehen zifraren adina letra dituen; bigarren berbak, pi zenbakiaren bigarren zifraren adina letra dituen, eta horrela. Kontuan hartuta pi zenbakiak infinitu zifra dituela, esaldia nahi adina luze egin daiteke.

Hona hemen Wikipediako artikulu horretatik ingelesezko esaldi bat:

**How I need a drink, alcoholic in nature, after the tough chapters involving quantum mechanics!**

Ikusten denez, lehen berbak 3 letra ditu; bigarrenak, 1; hirugarrenak, 4; eta horrela esaldia bukatu arte. Eta ez dira soilik esaldiak egin: nobelak ere idatzi omen dira muga hori kontuan hartuta.

Ohar moduan esan behar da 0a agertzen denean (lehenda-bizikoa 32. tokian agertzen da), 10 letratako berba bat sartu behar dela.

Era honetako egiturak hizkuntza askotan ikus daitezke Wikipediako artikuluko horretan (txineraz ere), baina euskaraz ez dut ikusi, eta, hobeago bat agertzen den arte, hona hemen bat, bat-batean asmatutakoa:

**Adi, o aita, o anaia: garaipena da gehien maite den gauza; apustuan irabazten irtetea ezinezkoa dut, ez dut erdietsi: dena galdua da.**

Hemen, norbaiten kitzikagarri, pi zenbakiaren lehen zifrak jartzen ditut. Aurrera!

3, 141 592 653 589 793 238 462 643 383 279 502 884 197  
169 399 375 105 820 974 944 592 307 816 406 286 208 998 628  
034 825 342 117 067 982 ...

### **Bibliografia:**

<http://en.wikipedia.org/wiki/Piphilology>

<http://www.euskaltzaindia.net/dok/eaeb/hiztegitatua/hiztegitatua.pdf>

*Jacinto Iturbe*

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA